



LA
LUZ
DE
LA
PAZ
DE
BELÉN

Bazen behin,
ARGIA

**Adarretarako
hezkuntza-materialak**



ESKAUT MUGIMENDU KATOLIKOA

ARGITARATZEA: Eskaut MSCren Kontseilu Nagusia 2021-2021

PASTORAL TALDEA: José Felipe Fernández, Encarnación Gil

EDUKIEN IDAZKETA: **Kastoreak:** Encarnación María Gil / **Koskorrak:** Sara García / **Oinarinak:** Alba González Calleja / **Azkarrak:** Eduardo Luís Martínez / **Trebeak:** José Felipe Fernández y Encarnación María Gil / **Kraal eta Asabak:** José Felipe Fernández

ITZULPENA: Miren Leanizbarrutia Biritxinaga - Eleizbarrutiko Euskera Zerbitzua

MALETAZIOA ETA DISEINUA: Eskauts MSCko Bulego Teknikoa Komunikazio

© Eskauts MSC 2021

Material hau Eskauts MSC eta bere kide diren elkarte guztiek erabiltzeko pentsatuta dago.

Aitorpena - Lan eratorriak sortzea onartzen da beti egiletasuna behar bezala aitortuz eta helburua ez komertziala duten.



LA
LUZ
DE
LA
PAZ
DE
BELÉN

«NI NAIZ
MUNDUKO
ARGIA»

Jn. 8,12



MATERIALAK
ADINAREN ARABERA:


ÍNDICE

	6 eta 8 urte bitartekoak.....	5
	9 eta 11 urte bitartekoak.....	14
	12 eta 14 urte bitartekoak.....	23
	15 eta 17 urte bitartekoak.....	35
	17 eta 23 urte bitartekoak.....	46
	Kraal ETA Helduak	55

6 - 8 URTE



LEHENENGO ASTEA



Aspaldi, aspaldi...

(DENBORAREN GARRANTZIA, KRISTAU DENBORA...)



“Mateo 24, 37-44”

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan. Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduen eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute; errotan ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute. Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko. Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.



“Orria”

Bazen behin leku guztietara beti berandu iristen zen Bego izeneko neska. Aldez aurretik dena prest izaten saiatzen zen, baina, azkenean, beti gertatzen zitzaion zerbait eta azkena heltzen zen lekuetara. Gau batean, oheratu aurretik, guztia berrikusi zuen, biharamunean prest egon zedin: uniforme armairuaren ondoan, motxila liburu eta koaderno guztiekin armairuaren kontrari eta jostailu guztiak bilduta.

Pelutxeak ohe gainetik kendu eta ohera sartzeko puntuan zela, ama heldu zen eskuetan orria zuela. Orri hori, folioaren neurrikoa zen eta karratutxo betetik zegoen. Bonboiz beteta zegoen eta egunero irekitzen zuen Abendu aldiko egutegiaren antzekoa zen.

Karratutxoaren atzean oparia zegoela beretzat, eta berandutu ezean, karratutxo bat irekiko zutela esan zion amak.

Begori oso gogoko gertatu zitzaion ideia eta egun horretatik aurrera biziki ahalegindu zen bere misioa betetzen saiatu eta karratutxoa ireki ahal izateko. Hasieran, nekeza egin zitzaion sasoz heldzea eta, ondorioz, egun askotan galdu ohi zuen karratutxoa irekitzeko abantaila.

Apurka-apurka, karratutxoaren azpian zegoena antzematen hasi zen. Zeru urdina eta norbaiten silueta ikusi zituen, baina oraindik ez zen aurpegia ikustera iritsi.

Gau batean, afalostean, amak orria ekarri zion eta berataz harro zegoela esan, apurka-apurka, denbora kudeatzen ikasi zuelako. Horregatik, ama bera baino harroago zegoen lagun bat aurkeztu nahi izan zion. Orria eman eta azken karratutxoa zabaltzeko eskatu ondoren, neskatoak esana egin zuen.

Eta Jesus irribarretsuaren irudia aurkitu zuen.

-Bego –esan zion amak-, hona hemen zure ahaleginaz harroen dagoena.

Begok irribarre egin zuen zoriontsu eta irudia bere gelan zintzilikatzeko eskatu zuen ez baitzuen inoiz ahaztu nahi.



"Abendu aldiko egutegia"

Soka batean, paper-zatiak eskegi arropen matxardekin. Paper-zati bakoitzean, egunaren zenbakia (azaroaren 27tik abenduaren 24ra) eta guztiak egin behar duten ekintza ona idatzi, esate baterako:

mahaia ipintzen lagundu, jostailuak bildu, triste dauden haurren alde otoitz egin, askaria erdibanatu, mezetan lagundu, egun horretan gehiago irakurri...



Lagungarriak: pita-soka, paper-zatiak mezuekin, arropak esekitzeko matxardak.



Jesus, lagundu,
nire denbora ondo aprobetxa dezadan.
Nekeza egiten zait etxeko lanak egiten hastea
eta etxean laguntzea,
baina zure laguntasunarekin lortuko dut.
Emadazu indarra, zuri otoitz egiteko eta
nire denbora eraginkortasunez antolatzeke,
bide batez Zuri poza eman diezazudan.

Amén.



Leku urren batean...

(ONDO SENTITZEN GARREN TOKIAK, OROIMENA EMATZEN GAITUEN TOKIAK)



“Mateo 3, 1-12”

Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan honela hots eginez:
 «Bihozberri zaitetzte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza ».
 Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak:
 «Ahots bat oihuka ari da basamortuan: | “Prestatu bidea Jaunari, | zuzendu bidexkak hari”».
 Joanez gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko,
 eta matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari.
 Jerusalem hiriko,
 Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen,
 eta, beren bekatuak aitortzen zituztela,
 Joanez bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.
 Fariseu eta saduzear askori,
 bataiatzera zetozela ikustean,
 honela esan zien Joanez:
 «Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela?
 Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela,
 eta ez pentsa nahikoa duzuenik “Abrahamen ondorengo gara” esatea.
 Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak.
 Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko:
 fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da.
 Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitetzten;
 baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da,
 eta ni ez naiz inor hari oinetakoak erantzeko ere;
 horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte.
 Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa:
 alea mandioan jasoko du;
 lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko».



“Udako etxea”

Bazen behin Ana izeneko neskatua. Izugarri gustatzen zitzaion uda. Urteko egun guztietan egiten zuen amets udarekin. Egutegia zuen horman zintzilikatuta eta goizero ezabatzen zuen aurreko eguna eta irrikaz begiratzen zion uztailari. Bazekien udaldia egun batzuk aurretik hasten zena, baina uztaila berezia zen beretzat.

Familia udako etxera joaten zen; belar moztu berri, eguzkitako krema eta jasmin usaina ematen zuen etxera. Baina, horrezaz gainera, osaba-izebek eta aiton-amonek ere urbanizazio berean zuten etxea eta, horregatik, lehengusu-lehengusinez inguratuta igarotzen zuen uda eta hori bai zela bikaina!

Goizez, Manolo lehengusuaren terrazan biltzen ziren guztiak eta bertan ematen zuten denbora mahai-jokoetara jolastuz edo, besterik gabe hitz eta pitz. Beti agertzen zen bazkaltzeko zer prestatuko zuten galdetuz etxex etxe joaten zen lehengusu edo lehengusinarekin bat, bere familiak prestatuko zuena baino gehiago gustatuz gero, etxe hartara joateko. Hainbat egunez, inork ez zuen bere etxean jaten.

Eta igerilekura joateko ordua iristean, eguneroko ohiturak betetzen zituzten: bainujantzia jantzi, eguzkitako krema egin eta toalla prestatu.

Uretan, lehengusu-lehengusina txikiari uretara buruz behera salto egiten edo besoetako flotagailurik gabe igeri egiten laguntzen genion.

Bazkalostea, lanak egiteko unea izaten zen, eta, bitartean, nagusiak siesta botatzen zuten. Eta une hori ahalik eta gehien atzeratzen bazuten ere, azkenean, elkarrekin jartzen ziren terrazan, itzalean, beren koaderno eta liburuekin.

Arratsaldez igerilekura bueltatzen ziren, meriendatzeko txokolatezko ogitartekoa eramanez.

Igandea zen egunik atseginena, izan ere, igerilekutik atera, dutxatu, dotore jantzi eta mezetara joaten ziren eta, askotan, handik atera eta udako zinera.

Asko gozatzen zuen Anak uda horiez, aiton-amona, osaba-izeba eta lehengusu-lehengusinarekin inguruan izanda. Ez zuen uda amaitzerik nahi.

Adin nagusiko da Ana, baina gaur egun ere, udaren etorrera irrikatzen du, bere etxera bueltatu, begiak itxi eta iraganeko barre-algarak entzuteko eta hain gustuko dituen jasmína eta itsasoa usaintzeko.




“Mapa”

“Altxorraren bila” arituko gara. Horretarako, inguruaren mapa egingo dugu eta altxorra Jesus dagoen lekuan izango da (kaperan, parrokian egonez gero, gurutzea, lokalean bagaude). Kafez edo tez zaharkitutako papera izango da altxor hori.

Hainbat proba gaintitu beharko dute altxorrera iristeko, esate baterako: beren txokoa txukundu, nagusi bati txistek kontatzeko eskatu edo kode ezkutuak dituzten mezuak argitu.

 Altxorra aurkitu ondoren, otoitz egin eta esker ona adierazi, Jesusek beti emango digulako babesa eta segurtasuna.



Jesus adiskidea, hona hemen gure otoitza zuretzat,
beste hainbat aldiz landan, hondartzan edo etxean
eskaini dizugunaren antzekoa.
Irits dadila, Jesus, gure otoitza munduko bazter guztietara,
batik bat zure agerpena gehien behar dutenengana.
Leku horietan ikus zaitzagula
Fes que et vegem en tots eixos llocs
eta zure argia munduan barrena heda dadila
eta beti didelagun izan zaitzagula.

Amén.

Bertan bizi zen herri bat...

(INSPIRATZEN GAITUEN PERTSONAK,
GURETZAT GARRANTZITSUAK...)



HIRUGARREN ASTEA



“Mateo 11, 2-11”

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzerara:

“Zu al zara «Etortzekoa», ala besteren baten zain egon behar dugu?».

Jesusek erantzun zien:

«Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuen:

itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie.

Eta zoriontsua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!».

Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari:

«Zer ikustera irten zineten basamortura?

Haizeak kulunka darabilen kanabera?

Zer ikustera irten zineten bestela?

Soineko apainez jantzitako gizona?

Jantzi apainekoak errege-jauregietan bizi ohi dira.

Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski,

eta profeta baino ere handiagoa.

Hartaz dago idatzia Liburu Santuan:

“Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik;

hark prestatuko dizu aurretik bidea”.

Benetan diotsuet:

Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik;

hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da».



“Aitonaren oparia”

Bazen behin Sonia izeneko neskato bat. Ilhoria zen eta motz erabiltzea gustatzen zitzaion. Neskato bihurria zen eta ohikoa zuen bihurrikeriak egitea.

Aitonak ez zuen batere gustuko neskatoaren jarrera eta etengabe asmatzen zituen gauzak neskatoa zintzoago izan zedin.

Saiatzen zen Sonia zintzo jokatzeko, baina oso gustuko zuen broma astunak egitea.

Bromak egiteari uzteko esan zion behin aitonak, bestela, jendea ez zela berataz fidatuko.

Sonia tristetu egin zen hori entzutean; guztiak berataz harro egotea nahi zuela esan zion aitonari. Horregatik, gaiztakeriaren bat bururatzen zitzaion bakoitzean, aitonak ezango ziokeenean pentsatu



eta, apurka-apurka, jokaeraz aldatu zuen.

Bere urtebetetze-egunean, aitona joan zitzaion bisitan koloretako paper ikusgarrian bildutako pake-tearekin.

-Sonia –esan zion aitonak-, azken hilabeteetan ikusi dudanez, asko ahalegindu zara zintzo jokatzeko, zergatik egin duzu?

-Pertsona hobea izan nahi dudalako egin dut, inork ez dezan aurpegi txarrik jarri zerbait egin dezadanean eta, batez ere, zu nitaz harro egon zaitez.

-Horixe aipatu nahi nizun, Sonia. Zure gertukook ikusi dugu asko ahalegindu zarela, baina, norbait ahaztu duzu...

-Nor, aitona?

-Ireki paketea eta ikusiko duzu zure jarrera aldaketaz harroen dagoen pertsona nor den..

Soniak ikusminez begiratu zion paketeari. Barruan kutxa polit bat aurkitu zuen eta haren barruan ispilu dotorea, behean "Sonia" idatzita zuena.

-Hona hemen zure oparia; ispiluari begiratzen diozun bakoitzean, ez ahaztu zuk zeuk egon behar duzula harroen eta pozen zure jokaeratik. Horrela bakarrik izango zara zorientsu eta guk antzeman egingo dugu.



"Esker oneko gutunak"

Guztiok eman diezazkiogu eskerrak beste norbaiti. Idatz diezaiogun gutuna lagun horri /horiei. Orriak, boligrafoak eta koloretako errotuladoreak erabiliko ditugu.

Pandemian, osasun arlokoak izan ziren gure zaintzaile nagusiak. Beraz esker oneko gutunak idatziko dizkiegu gure inguruko ospitaleetako sendagileei, erizainei, laguntzaileei, garbitzaileei.




Gutun horien bidez jakin dezatela biziki eskertzen dugula beren ardura.



Jesus, eskerrik aski gure inguruko pertsona guztiengatik. Maite gaituztenengatik eta ez gaituztenengatik. Guztien gainera isuri zure maitasuna; guztein gainean argi egin zure argiarekin eta elkarrekin mundua leku hobe bihur dezagula.
Amén.

LAUGARREN ASTEA



...Eta zoriontsu izan ziren.

(ZORIONTASUNA JESUSEKIN JAIO DA, SENTIMENDU ONAK...)



“Mateo 1, 18-24”

Jesus Mesiasen sortzea honela gertatu zen:
Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen;
eta, elkarrekin bizitzen hasi aurretik,
haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez.
Jose, Mariaren senarra, gizon zuzena zen;
ez zuen hura salatu nahi, eta isilean uztea erabaki zuen.
Asmo horrekin zebilela, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion:
«Jose, Daviden ondorengoa, ez izan beldurrik Maria zeure emaztetzat hartzeko,
harengan sortua Espiritu Santuarengandik baitator.
Semea izango du, eta zuk Jesus ezarriko diozu izena,
berak askatuko baitu bere herria bekatuetatik».
Hau guztia, Jaunak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen:
«Hara, birjinak haurdun gertatu eta semea izango du, eta Emmanuel jarriko dio izena (Emmanuel izenak “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».
Esnatzean, Jaunaren aingeruak agindua egin zuen Josek, eta Maria emaztetzat hartu zuen.



“Margolaria”

Bazen behin Markos izeneko margolari bat. Oso gustuko zuen akuarelaz margotzea. Urak, pinturarekin nahastatzean, forma izugarriak sortzen zituela pentsatzen zuen.

Gehienetan, aginduz margotzen zuen. Egun horretan, katuei buruzko margolanak agindu zizkieten; familia batek hainbat katu zuen eta bakoitzari margolan bat eskaini nahi zion.

Gau horretan, bere pintzelak atera, paperak prestatu, margolanak ordenatu eta gehien gustatzen zitzaion musika jarri zuen margotzeko. Katuen argazkiak berrikusi eta margotzeari ekin zion.

Txitean-pitean, kuadroz aldatzen zuen, akuarelak ezinbesteko duelako apur bat lehortzea jarraitu ahal izateko. Eta bueltatzean, akuarelak berak sortutako forma eta xehetasun berriak aurkitzen zituen...

Handik egun gutxira bukatu zituen koadroak eta hitzordua egin zuen familiarekin tailerrean bertan, ikus zitzaten. Familia goibel samar iritsi zen, duela egun batzuk amona hil zitzaielako.

Markosek koadroak erakutsi zizkien. Laster ikusi zuen beren aurpegieran koadroak gustuko zituztela, irribarre zabala atera zitzaielako.

- Izugarri gustatu zaizkigu koadroak –esan zuen aitak-. Primeran islatzen eta irudikatzen dituzte gure katutxoak. Gainera, guztiek gogorazten didate amona eta hori da gehien gustatu zaidana.

- Berdin gertatzen zaizue?, galdetu zien aitak seme-alabei.

-Bai! –esan zuen alaitasunez alaba nagusiak-. Koadro honetan, atzealdean, bere perlazko lepokoa



ikusten dut; beste honetan, bere eskua gustuko zuen katua ferekatzen. Eta honetan, bere irribarrea ikusten dut eguzki-izpian.

Markosek kuadroei begiratu eta neskatoak aipaturiko xehetasun guztiak aurkitu zituen. Beretzat pinturak urarekin sortu zituen formak zirenak, familiarentzat irribarrea sorrarazten zion distirak ziren. Egun horretan, bere margolanekin besteak zoriontsu egin zitzakeela ikasi zuen Markosek, eta horretan saiatu zen gogo handiz: margotzen eta besteak zorioneko egiten.

"Zorion-potoa"

Lagungarriak: kristalezko poto bana partaideentzat, margoak, koloretako paperak, boligrafoak, erro-tuladoreak eta sokak.

Partaide bakoitzak bere gustura apainduko du bere potoa lagungarriekin eta "Zorion-potoa" etiketa jarriko dio. Bileran, partaide bakoitzak astean zoriona ekarri dion zerbait idatziko du paperrean. Paper horiek urtebetez edo egokitzat jotzen den tartean potora gehituko dituzte eta, epea amaitzean, beraiek aukeratutako mezuak irakurtzeko eta une zoriontsuak gogoratzeko aukera izango dute.

 **Poto bakarra presta daiteke talde osoarentzat.**



Jesus, etorri eta irakatsi maitatzen,
Zeuk bakarrik lagun diezadakezu-eta
zoriona aurkitzen.

Lagundu bizitzako tristurak uxatu
eta besteak zorioneko egiten
Eman pozaren dohaina,
Mariari eman zenion bezala.
Horrela, ozen iragarriko dut zure
jaiotza.

Amén.



9 - 11 URTE





LEHENENGO ASTEA

Aspaldi, aspaldi...

(DENBORAREN GARRANTZIA, KRISTAU DENBORA...)



“Mateo 24, 37-44”

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan. Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduena eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute; errota ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute. Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko. Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.



“Aitaren bidaiak”

Behin batean, Lucia eta Carolina izeneko bi ahizpa hiritik gertu zegoen herri txiki batean bizi ziren. Halako egun batan, aita hirira joan behar izan zuen laneko bilera batera; horren eraginez, egun osoa emango zuen etxetik kanpo. Lucia eta Carolinak inoiz ez zuten hainbeste denbora igaro aita gabe eta, horregatik, egun berezia izango zen beraientzat. Joan aurretik, aita hurbildu zitzaizen besarkatzera:

—Berandu samar bueltatuko naiz, seguruenik afalordurako –esan zien-. Dena dela, neure neskekin elkartu nahiko nuke iristean. Besarkada estuaz hartuko nauzue?

—Jakina baietz, aita!, erantzun zuten biek ala biek.

Eta irribarre bana oparitu zien alabei hirira abiatu aurretik. Goizeko hamarrak ziren aita joan zenean eta Luciak etxean sartu eta eskolako koaderno eta liburuak ordenan jartzea erabaki zuen. Aitzitik, Carolina sarrerako eskaileretan geratu zen, bertan eseri eta aita bueltatu arte denbora pasatzen utziz. Carolinak aitaren zain jarraitu zuen eta, bitartean, Lucia, bere lanak amaitu eta eseri egin zen pelikula ikusteko. Bazkalorduan ere, eskaileratik presaka altxatu, ahalik eta bizkorren bazkaldu eta leku berera itzuli zen. Ez zuen hitz egin ez amarekin ezta ahizparekin ere, aurrean zuena jan eta ezinegonez leihotik begiratu baizik ez zuen egin. Eskailerara bueltatu eta hantxe egon zen mugitu gabe arratsalde osoan. Bitartean, Luciak liburua irakurri zuen, bideokontsolarekin jolastu eta herriko beste hainbat neska-mutikorekin jolasteko astia ere hartu zuen.

Afalordurako hogeita minutu falta zirela iritsi zen aitaren autoa beren kalera. Carolina salto batez altxatu eta arineketan joan zen aitarengana autotik jaisteaz batera besarkatzeko.

—Kaixo maitea! –agurtu zuen, besarkada emateaz batera-. Eta zure ahizpa?

Une horretan bertan, Lucia agertu zen kalean, lasterka. Aita ikusteaz batera, lasterketa biziagotu eta

tupust egin zuen aitarekin besarkatzera zihoanean. Berriz alaben ondoan zela, bera kanpoan zen bitartean zer egin zuten galdetu zien aitak eta harritu egin zen alaben erantzunekin. Eskaileretan eseri eta elkarrizketan jarduteko gonbitea egin zien.

Maitasunez begiratu zion Carolinari.

—Eskerrik asko sarreran nire zain egoteagatik, baina bazenekien oso berandu itzuliko nintzela eta gauza asko egiteko aukera alferrik galdu duzu. Gainera, ez diezu jaramonik egin zure ahizpa eta amari.

Gero, Luciari begiratu zion.

—Oso ondo dago hainbeste gauza egitea, baina garrantzitsuena ahaztu egin duzu, familiarekin zenuen konpromiso bakarra ez duzu bete. Hainbeste gauza egin nahi izan duzu non zure hitza ez duzun bete.

Etenaldia egin eta neskatoak berarengana erakarri zituen bere besoez inguratuz.

—Begira guztiok dugu gauza bat etengabe erabiltzen duguna eta, guk nahi ala ez, inoiz bueltatzen ez dena: denbora. Bakoitzak bere nahierara darabil, baina badira bi irakasgai denboraz baliatzean ahaztu behar ez ditugunak: ez dugu alferrik galdu behar eta ez ditugu ingurukoak ahaztu behar. Aprobetxatu denbora eta utzi beti denbora gehien maite dituzuen pertsoneri eskaintzeko.

Aitari entzun ondoren, Lucia eta Carolinak eguna amaitu aurretik zuten denbora egokitasunez aprobetxatuko zutela agindu zuten, hain zuzen ere, familiarekin eta, batez ere, aitarekin.




“Jainkoaren erlojua”

Harea-erlojua egingo dugu etxean. Horretaz baliatuz, egunean tartetxo bat gordeko dugu Jainkoarekin hitz egiteko eta Jainkoa inoiz ez ahazteko.

Behar izango ditugun lagungarriak: plastikozko bi botila txiki haur bakoitzeko, zinta itsasgarria, arkatza, kartulina, guraizeak eta gatz xehea. Botila-lepoaren formaz zirkulua markatuko dugu kartulinan eta gero ebaki egingo dugu. Kartulinazko pieza zintarekin itsatsiko dugu botilaren ahokaduran eta zulo txiki bat egingo diogu guraizeez.



Bigarren botilaren herena inguru gatz bez beteko dugu (gatza koloretako klarionez nahastatu daiteke, dibertigarriago izan dadin). Azkenik, bi botilak lotuko ditugu ahokaduran zinta itsasgarriz.



Jauna, nire denbora eman dezadala, gehien maite ditudanekin aprobetxa dezadala, beti aurki dezadala tarte zuri otoitz egiteko denbora zeuk ematen didazula ez ahazteko eta besteek niregan gastatu duten denboragatik eskerrak emateko.

Amén.



Leku urren batean...

(ONDO SENTITZEN GARREN TOKIAK, OROIMENA EMATZEN GAITUEN TOKIAK)



“Mateo 3, 1-12”

Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan honela hots eginez:
 «Bihozberri zaitetzte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza ».
 Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak:
 «Ahots bat oihuka ari da basamortuan: | “Prestatu bidea Jaunari, | zuzendu bidexkak hari”».
 Joaneke gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko,
 eta matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari.
 Jerusalem hiriko,
 Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen,
 eta, beren bekatuak aitortzen zituztela,
 Joaneke bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.
 Fariseu eta saduzear askori,
 bataiatzera zetozela ikustean,
 honela esan zien Joaneke:
 «Sugekumeok! Nork esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela?
 Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela,
 eta ez pentsa nahikoa duzuenik “Abrahamen ondorengo gara” esatea.
 Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak.
 Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko:
 fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da.
 Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitetzten;
 baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da,
 eta ni ez naiz inor hari oinetakoak erantzeko ere;
 horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte.
 Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa:
 alea mandioan jasoko du;
 lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko».



“Mendixka”

Baziren behin Mateo eta Jorge izeneko bi haur. Adiskide min ziren hiru urte zituztela eskolan ezagutu zirenetik eta beti elkarrekin zeuden. Arratsalde libreetan edo oporraldian, oso gustuko zuten saskibaloian, bideo-jokoetara jokatzera edo, besterik gabe, auzoko kaleetan arinetan ibiltzea. Baina, gauza guztien gainetik, benetan gustatzen zitzaiena, eskolatik gertu zegoen mendixkara igotzea zen. Leku hark hiriaren ikuspegi ederra eskaintzen zien eta eremu bikaina zen hegazkinak ikusteko.

Hain zuzen, horixe zen beren denbora-pasa gustukoena eta hiritik gertu zegoen aireportutik ateratzen ziren hegazkin guztiak eta inguru hartatik bakarrik igarotzen zen beste hainbat. Hegazkin bakoitzaren jomuga asmatu nahirik ematen zuten denbora eta hegazkin bakoitzeko bidaiariak nortzuk izango ote ziren ere imajinatzen zuten. Eta hegazkin horietako batean joatea ere zirrargarri izango zatekeela uste zuten, oraindik probatu gabe baitzeuden biak. Haize-egunetan, pare bat kometarekin igotzen zuten mendixkara era haiekin pasatzen zuten denbora kometei hegan eginaraziz, hegazkinak balira

bezala. Egun batean, Mateok oso triste hots egin zion Jorgeri:

—Banoa –esan zion, negarrez hasteko zorian-. Gurasoek beste herrialde batean lan egingo dute eta guztiok goaz beraiekin. Ez dakit hona bizitzera bueltatuko garen.

Jorgek ezin zuen sinetsi adiskide minaren ahotik entzun zuena. Hainbeste denbora eman zuten elkarrekin! Eta aurrerantzean, zertan emango ote zituen arratsaldeak berak bakarrik? Dena dela, Mateok bien ametsa beteko zuen: hegazkinez bidaiatu. Beraz, Mateok bidaiari ekin zion egunean, Jorge mendixkara igo zen eta bere gaineratik igaro ziren hegazkin guztiei begiratu zien, horietako batean bere adiskidea joango zela-eta.

Jorgek ohiturari eutsi egin zion eta egunero igotzen zen mendixkara hegazkinak ikusteko edo, besterik gabe, eseri eta beretzat nahia Mateorentzat hain berezia zen leku hartan atsedean hartzeko



Gure lekua


“Jesus Haurtxoari gure lekua nolakoa den esango diogu, jaio eta pixka bat hazten denean gurekin jolastera etor daitekeelako eta dena finkatzen baita gure asteko jarduerak egiten ditugun tokian”.

“Ikasleak talde txikitik banatzen ditugu eta leku inguruan ditugun materialak ematen dizkiegu, hala nola kartoia, kotoia, oihala, haria, kola... Taldeka lekuaren maketa egin behar dute eta argi adierazi nondik norakoak. Jesus Haurra haiekin egongo den lekua».



Jesus adiskidea, hona hemen gure otoitza zuretzat, beste hainbat aldiz landan, hondartzan edo etxean eskaini dizugunaren antzekoa. Irits dadila, Jesus, gure otoitza munduko bazter guztietara, batik bat zure agerpena gehien behar dutenengana. Leku horietan ikus zaitzagula eta zure argia munduan barrena heda dadila eta beti bidelagun izan zaitzagula.

Amén.



Bertan bizi zen herri bat...

(INSPIRATZEN GAITUEN PERTSONAK,
GURETZAT GARRANTZITSUAK...)



“Mateo 11, 2-11”

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzerara:
 “Zu al zara «Etortzekoa», ala besteren baten zain egon behar dugu?».
 Jesusek erantzun zien: «Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuen: itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie. Eta zorientzua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!». Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari:
 «Zer ikustera irten zineten basamortura? Haizeak kulunka darabilen kanabera? Zer ikustera irten zineten bestela? Soineko apainez jantzitako gizona? Jantzi apainekoak errege-jauregietan bizi ohi dira. Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa. Hartaz dago idatzia Liburu Santuan: “Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik; hark prestatuko dizu aurretik bidea”. Benetan diotsuet: Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik; hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da».



“Liburuzaina”

Bazen behin Elena izeneko neskatoa. Elenak oso gustuko zuen irakurtzea eta bere urtebetetzearen edo egun berezien atarian, liburu berria eskatzen zuen beti opari bezala. Baina ezin zen ezerekin konparatu liburutegira joan eta han aurkitzen zuen liburu-pila ikustean sentitzen zuen gozamenarekin. Aukerarik txikiena ete aprobeztatzen zuen, liburutegira joan eta istorio zahar eta berriez beteriko apaletzien artean galtzeko. Hantxe egoten zen, edo etxeko lanak egiten edo irakurtzen.

Bazuen liburutegira joateko beste arrazoi bat ere: gelako mostradorean egoten zen liburuzain atsegina. Delia zuen izena eta emakume edadetua zen. Deliak Elena hazten ikusi zuen eta ederto zekien neskatoaren zaletasunei buruz eta, horregatik, irakurri ahala gomendatzen zizkion liburu berriak eta beti asmatzen zuen. Liburuzainak gomendatutako liburu bakar bat ere ez zitzaion desatsegin gertatu. Eta astia zuenean, liburuzaina eta neskatoa elkarren ondoan esertzen ziren eta lehenengoak etxeko lanak egiten laguntzen zion, ulertzen ez zuena argitzen saiatuz. Hainbat aldiz, triste zegoenean edo etxeko lanak egiteko gogorik ez zuenean, liburuzainak txokolatina bat ateratzen zion eraikinaren sarreran zegoen makinatik barre eragiteko.

Elena etxeko lanak egiteko liburutegian geratu zen egun batean eta Delia ez zela han ikusi zuen. Bere lekuan zegoen liburuzainari galdetu eta honek gaixorik zela eta egun batzuez ez zela liburutegira etorriko erantzun zion. Orduan, Delia ondoan ez zuela, bere alde egin zuen guztiaz jabetu zen Elena eta itzultzean oparia egingo ziola pentsatu zuen.

Aste osoan eraman zuen Elenak oparia bere motxilan, Delia liburutegian agertzeaz batera eman ahal izateko. Azkenean, gaixotu eta astebetera, itzuli zen liburuzaina eta neskatoak, atetik sartu eta mostradorearen ostean ikusteaz batera, oparia eman zion. Liburuzainak irribarre egin zuen oparia jasotzean.

—Eskerrak eman nahi dizkizut niregatik egin duzun guztiagatik —esan zion Elenak-. Ondoan izan ez zaitudan arte ez naiz konturatu zein garrantzitsua zaren niretzat. Eskerrik asko beti hor egoteagatik, etxeko lanak egiten laguntzeagatik eta munduko liburuzainik onena izateagatik.

Deliak, hunkituta, besarkada eman zion Elenari eta liburutegiko mahai batean eseri zien biak, oparia zabaltzeko eta liburu artean arratsalde atsegina igarotzeko.



“Txartela”

Taldekilde bakoitzak txartel bat prestatuko du beretzat garrantzitsu eta maitea den norbaiti oparitzeko. Lagungarri hauek behar ditugu: orri edo kartulina txikiak, errotuladoreak eta paper-materialak.

Orri edo kartulina erditik tolestuko dugu eta aurreko aldean “Eskerrik asko niregatik egiten duzun guztiagatik” esaldia idatziko dugu. Txartelaren barruan, lagun bakoitzak idatziko du zergatik adierazi nahi dion esker ona pertsona berezi horri. Ondoren, geure gustura margotu eta apainduko dugu. Eskura ditugun paper-materialez (purpurina, forma itsasgarriak, borlak, e.a.)



Baliatuko gara.



•••••
Eskerrik asko, Jainko Jauna, maite nauen hainbeste lagun nire ondoan jarri duzulako, pertsona horiek maite eta babestu egiten nautelako eta Zuk aita maitasun eta samurtasuna ematen diezulako eta beraiek eta. batez ere Zu, bidelagun zaituztedalako.

Amén.



...Eta zoriontsu izan ziren.

(ZORIONTASUNA JESUSEKIN JAIO DA, SENTIMENDU ONAK...)

LAUGARREN ASTEA



“Mateo 1, 18-24”

Jesus Mesiasen sortzea honela gertatu zen:
 Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen;
 eta, elkarrekin bizitzen hasi aurretik,
 haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez.
 Jose, Mariaren senarra, gizon zuzena zen;
 ez zuen hura salatu nahi, eta isilean uztea erabaki zuen.
 Asmo horrekin zebilela,
 Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan eta esan zion:
 «Jose, Daviden ondorengoa,
 ez izan beldurrik Maria zeure emaztetzat hartzeko,
 harengan sortua Espiritu Santuarengandik baitator.
 Semea izango du, eta zuk Jesus ezarriko diozu izena,
 berak askatuko baitu bere herria bekatuetatik».
 Hau guztia, Jaunak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen:
 «Hara, birjinak haurdun gertatu eta semea izango du,
 eta Emmanuel jarriko dio izena (Emmanuel izenak “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».
 Esmatzean, Jaunaren aingeruak agindua egin zuen Josek,
 eta Maria emaztetzat hartu zuen.



“Amonaren loreak”

Bazen behin Pablo izeneko mutiko bat. Mutikoa ez zen oso lagunartekoa eta ez zuen lar gustuko eskolan gainerako haurrekin jolas egitea; aurpegiera iluna izaten zuen askotan. Egunero, aitona eta amona joaten zitzaizkion eskolara bila, beraiekin etxera joaten zen eta hantxe itxaroten zuen gurasoak lanetik atera eta bere bila joaten ziren arte. Aiton-amonak jatekoa prestatzen zioten eta bere ondoan izaten zituen etxeko lanak egin bitartean.

Halako egun batean, amona egongelan sartu zen Pablo telebista ikusten zegoela eta honen ondoan eseri zen aurpegiera ilunaz. Paulok ez zekien zergatik zegoen amona aurpegi haserreaz. Sukaldean, nahigabe, zerbait lurrera bota ote zuen eta orain errieta egingo ote zion? Hala ere, ezustean harra-patu zuen zerbait egin zuen: barre-algara egin zuen, ozen egin ere eta barre-karkara kantari eta kutsakorraz. Ondorioz Pablok ere, barreari ezin eutsi eta barre-algara egin zuen. Harritu egin zen; aspaldi ez zitzaion irribarrerik atera eta are gutxiago barre-algararik... Amonak barre egiteari utzi zionean, mutikoak irribarretsu jarraitu zuen; amonak burua ferekatu zion eta sukaldera joan zen. Egia esan, ez zuen ondo ulertzen amonaren jokaera, baina benetan gustuko gertatu zitzaion barre-algara hura. Gurasoak bila etorri zitzaizkionean, lore gorria ikusi zuen ate-ondoko mahaian, baina ez zion aparteko garrantzirik eman.

Hurrengo egunetan ere barre edo gauza bitxiak egiten jarraitu zuen amonak eta, azkenean, Pablo-ri ere barrea ateratzen zitzaion. Baina, zalantzarik gabe, beste zerbait gertatzen zitzaion bitxien: amonak (ustez behintzat) egunero-egunero, lore artifizialak ipintzen zituela etxeko hainbat lekutan. Azkenean, egun batean, inoizko txisterik txarrenak entzun ondoren, senideen hainbat argazki jasotzen zituen egongelako apalean lorea ipintzen aurkitu zuen amona.

—Amona, zergatik ipintzen dituzu lore horiek? Ez du inongo zentzurik.

—Ikusi duzu zenbat kolore dakarten etxera? —erantzun zion amonak, lore berria zegokion lekuan jartzean-. Zorioneko izan zien unea, lehertu arte barre egin zenueneko edo, besterik gabe, irribarrea atera zitzaizuneko irudikatzen du lore horietako bakoitzak. Zorionak eta poztasunak biziz betetzen dituzte gure egunak eta, zailtasunak zailtasun, aurrea egiten laguntzen diguten eragile dira. Eta horixe gertatu da etxe honetan hori sentitu duzun bakoitzean, biziz eta kolorez bete gaituzu.

Paulok berriz loreak arretaz begiratu eta orduan ulertu zuen amonak esan nahi ziona. Horrela, aurreantzean, aiton-amonari hainbeste gustatu zitzairen poztasunaren kolorez inguruak betetzen saiatuko zela agindu zion bere buruari.




“Zorionaren globoak”

Globoekin oztopo-lasterketa egingo dugu. Lagungarri huez baliatuko gara: koloretako globoak, erro-
tuladoreak, kutxa edo ontzi zabala eta zinta itsaskorra.

Bakoitzak bere globoa puztu eta zorioneko egiten duen zerbait edo oraintsu bizi izan duen zorioneko gertaeraren bat idatziko du bertan. Biltzen garen lekuan, ibilbidea eratuko dugu. Globoak lurrera jausi gabe ibilbidea burutu eta globoa kutxan saskiratzea da helburua.



**Globoak ibilbidearen amaierara iristean, gelako hormara itsatsiko ditugu zintza itsasga-
riaz gela apaintzeko.**



Jauna, Zu etengabe bilatzeko indarra
eman diezadazula eskatzera nator,
Zuregan dagoelako zoriona,
Zu nire bizitzan ez bazaude, gauzak ilundu egiten direlako,
eta nirekin bazaude zoriona eramango diedalako triste daudenei,
zure poztasunaz kutsaturik zure etorrera iragarri
eta bihotzak zuretzat prestatuko ditudalako.

Amén.



12 - 14 URTE





Aspaldi, aspaldi...

(DENBORAREN GARRANTZIA, KRISTAU DENBORA...)



“Mateo 24, 37-44”

Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan. Uholdearen aurretik, jan-edanean ziharduen eta ezkondu egiten zen jendea, Noe ontzian sartu zen arte; eta ez ziren konturatu, uholdea iritsi eta denak eraman zituen arte. Gauza bera gertatuko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Soroan izango diren bi gizonetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute; errota ehotzen ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute. Zain egon, beraz, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Gogoan hartu hau: etxeko nagusia, lapurra gaueko zein ordutan etorriko den jakingo balu, zain egongo litzateke eta ez luke etxea zulatzen utziko. Prest egon, bada, zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.



“Denboraren bankua”

Demagun goizero zure kontuan 86.400 eurotako diru-kopurua sartzen duen bankua dagoela. Banku bitxi honek, aldi berean, ez du zure saldoa egun batetik bestera pasatzen; gauero, gastatu ez duzuna ezabatu egiten du zure kontutik. Zer egingo zenuke?... Uste dut egunero kenduko zenukeela kontutik gastatu gabeko kopurua, ala? Ba, guztiok dugu banku hori, hain zuzen ere, denbora izenekoa.

Goizero, banku horrek 86.400 segundo sartzen ditu zure kontu partikularrean. Gauero, banku horrek saldo horretatik probetxuzko gauzetan inbertitu ez duzuna kontutik ezabatu egiten du, galdutzat jotzen du.

Banku horrek ez ditu saldoak egun batetik bestera pasatzen. Egunero irekitzen dizu kontu berria. Gauero ezabatzen ditu eguneko saldoak. Dagokizun saldoa egunez erailtzen ez baduzu, zeu zara galtzailea. Ezinezkoa da atzera-martxa sartzea.


Ez dago zordunketarik biharko sarreraren kontura: orain aldia bizi behar dugu gaurko saldoarekin. Beraz, hona hemen aholku ona: inbertitu zure denbora ahalik eta ondoen, osasun, zorientasun eta arrakastarik handiena lortu ahal izateko. Erlojua martxan da. Goreneko lorpena iristen saiatu! Urtebeteren balioa ulertzeko, galdetu ikasturtea errepikatu duen ikasleari. Hilabetearen balioa ulertzeko, galdetu ume goiztiarra izan duen amari. Astebeteren balioa ulertzeko, galdetu astekariaren argitaratzaileari.



Ordubetearen balioa ulertzeko, galdetu noiz elkartuko zain dauden maitaleei.
Minutuaren balioa ulertzeko, galdetu trena galdu zuen bidaiariari.
Segundoaren balioa ulertzeko, galdetu istripua jasateko zorian izan zen pertsonari.
Segundo-milarenaren balioa ulertzeko, galdetu olinpiadetan zilarrezko domina irabazi zuen kirolaria-
ri. Gorde bizi duzun une bakoitza; eta altxor horrek are eta balio gehiago izango du pertsona berezi-
ren batekin, zure denbora ematea merezi duen norbaitekin... banatuz gero. Eta gogoratu, denborak
ez duela inorengatik itxaroten.

 "Jarduera "

Idatzi gutuna urtebete barruko "zeure buruari". Gutunean, nahi dituzun galdera eta gogoetak sartu,
bereziki, gaur egun zuretzat garrantzitsuen diren gauzen ingurukoak. Gaur bezain garrantzitsu izango
ote dira urtebete barru? Zertan inbertitu nahi duzu aurrez aurre dituzun 365 egunetako denbora? Zein
lehentasuni oparituko diozu zure denbora?

 **Aske izan! Idatzi eta galdetu nahi duzun guztia. Amaitzean, gorde gutun hori zure tal-
dekideen gutunekin batera. Urtebete barru, hain zuzen, berreskuratuko gutuna eta ikusi
ordu garrantzitsu ziren gauzak berdin jarraitzen duten ala ez.**

Handwritten response area with horizontal dashed lines.



Hutsik nago, Jauna;
hobeto esanda, neure buruaz beterik nago,
neure eta neure ingurukoen presez, ardurez,
gaixotasunez, egitekoez beterik nago

Hemen nauzu, katilu huts banintz bezala,
zure maitasunez bete nazazun;
hemen nauzu erabilitako koaderno bezala,
orrialde berria Zeurekin hasteko

Hemen nauzu, ia kontuan hartzen ez bazaitut
ere.
Sar zaitetz nire barruan, bil nazazu,
eraman nazazu eskutik.

Aldatu nire ahoko hitza,
ferekak, ulermena,
eta berri onak jar ditzadan.

Aldatu zarata eta kritikez betetako nire bela-
rriak,
harrera abegitsua eskain dezadan.

Aldatu nire begi kuxkuxeroak,
begirada errukitsu eta kontenplalaria izan
dezadan.

Aldatu nire esku aktibistak,

nire eskuak laguntzaile eta bizi-eragile izan dai-
tezen.


Aldatu nire oin arin eta estresatuak
nire oinak anaiaren bila joateko prest egon dai-
tezen.

Aldatu estutasunez beteta dagoen nire burua,
soseguz eta elkartasunez beteta izan nadin.

Aldatu nire bihotz adigabe eta hutsala,
nire bihotzak Zu bilatu, aurkitu eta gozatu zaitzan.

Hemen nauzu, Jauna, hutsik, Zeuk bakarrik alda
nazakezu.
Jauna, bil nazazu zure maitasunean, berri nazazu
barrutik.

Amén



Leku urren batean...

(ONDO SENTITZEN GARREN TOKIAK, OROIMENA EMATZEN GAITUEN TOKIAK)



“Mateo 3, 1-12”

Garai hartan agertu zen Joan Bataiatzailea Judeako basamortuan honela hots eginez:
 «Bihozberri zaitetzte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza ».
 Joan honi buruz esan zuen, hain zuzen, Isaias profetak:
 «Ahots bat oihuka ari da basamortuan: | “Prestatu bidea Jaunari, | zuzendu bidexkak hari”».
 Joaneke gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko,
 eta matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari.
 Jerusalem hiriko,
 Judea osoko eta Jordan inguru guztiko jendea harengana joaten zen,
 eta, beren bekatuak aitortzen zituztela,
 Joaneke bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.
 Fariseu eta saduzear askori,
 bataiatzera zetozela ikustean,
 honela esan zien Joaneke:
 «Sugekumeok! Norke esan dizue gainean duzuen haserre-zigorrari ihes egingo diozuela?
 Ager ezazue zeuen jokabideaz bihozberrituak zaudetela,
 eta ez pentsa nahikoa duzuenik “Abrahamen ondorengo gara” esatea.
 Egia esan, honako harri hauetatik ere atera ditzake Jainkoak Abrahamen ondorengoak.
 Prest dago aizkora zuhaitza hondotik jotzeko:
 fruitu onik ematen ez duen zuhaitz oro moztu eta sutara botako da.
 Nik urez bataiatzen zaituztet bihozberri zaitetzten;
 baina nire ondoren datorrena ni baino ahaltsuago da,
 eta ni ez naiz inor hari oinetakoak erantzeko ere;
 horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte.
 Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera doa:
 alea mandioan jasoko du;
 lastoa, ordea, inoiz itzaliko ez den sutan erreko».



“Lorenzoren bidaia”

Bazen behin Lorenzo izeneko mutil bat. Beti zegoen betilun, asper-asper eginda eta bakarrik. Bizitzan zerbait ez zihoala ondo sentitzen zuen, zerbait falta zitzaiola, nahiz eta zer ez jakin. Bere lekua aurkitu nahirik zebilen. Bere inguruko guztia etsigarria eta iluna, oso iluna zen. Bizitzan, ez zuen inongo eragingaririk aurkitzen, ez zuen poza emango zion inongo arrazoirik aurkitzen eta, azkenean, egoe-rak erabat akitu zuen. Bizimodu garratz eta goibelaz gogaiturik, Lorenzok bizitza errotik aldatzea erabaki zuen. Falta zitzaion poz eta motibazioa, biderako argia aurkitzen lagunduko ziokeen bidaiari ekiteko irrikaz zegoen. Lehen aldiz, Lorenzok bere bizitza gobernatuko zuen eta, horregatik, harro eta itxaropentsu sentitu zen.

Lorenzo hunkiturik eta beldurrez beterik zegoen. Orain arte, arrazoi gutxi aurkitu zuen bizitzan zorioneko izateko eta nekeza egiten zitzaion baikortasunez pentsatzea. Baina erabakita zuen bidaiari ekin eta

bere patuari buelta ematea. Motxila prestatu eta erabakiaren berri eman zion familiari. Hasieran, gurasoek ezezko borobila eman zioten eta egundoko liskarra piztu zen etxean. Ez zuen ulertzen zergatik pentsatu zuen hain urrun joatea eta behin eta berriz zioten arazoak ez zirela ihes eginda konponduko.

Zenbait ordu azalpenak ematen igaro ondoren, bere bizitza ilunerako argi apur baten bila joatea ezinbesteko zuela ulertarazi zien Lorenzok. Gurasoek burujabe izaten eta bere erabakiak hartzen ikasten irakatsi zioten. Eta kostatu bazitzairen ere, Lorenzok horixe behar zuela konturatu ziren eta onartu eta errespetatu egin zuten bere erabakia, beren pentsamenduarekin bat ez zetorren arren. Eta gurasoen babesarekin ekin zion bere bideari.

Abenturari ekinda, Lorenzo ohitu egin zen bideko bakardadera. Nahi adina denbora zuen paisaiaren, urrutian ikusten zituen mendien, bide-ertzeko ibaiaren, ezkutuan zenean ikusten zituen abereen... edertasunaz gozatzeko.

Zuhaitzaren itzalean eseri zen behin zerbait jateko eta kantinplora bilatu ezinik ibili zen. Gogoan zuen nola sartu zuen motxilan eta, horregatik, traste guztiak atera eta ordenatzen hasi zen, ura agertuko zelakoan. Motxilaren poltsikoetako batean, kartazala aurkitu zuen, ustez berak sartu ez zuena. Ireki eta amak idatzitako mezua zela ikustean, begiak malkoz bete zitzaizkion. Zera zioen: "zure adiskide guztien eta gainerako senideen adore-hitzak bildu ditut. Lagungarri izango dituzu une zailetan. Maite zaitut, ama". Senide eta lagunuen maitasunak indarra eman zion Lorenzori bidean aurrera egiteko.

Makina bat zailtasun aurkitu zuen bidean: lokatza, harriz, eroritako zuhaitzez..., beteriko hala moduzko bideak... Eta bide harriztatu batean, Lorenzok gaizki zapaldu eta orkatila bihurtu zuen. Zutituzeko arazo asko zuen eta are eta arazotsuago zen ibiltzea. Ezinbesteko zuen herrira heltzea atsedean hartzeko, baina estu eta larri zen ezerezaren erdian eta inongo laguntzarik gabe zegoen-eta. Zenbait pertsona igaro zen leku hartatik, baina Lorenzok, lotsaz beterik, ez zion inori laguntzarik eskatu, ukatu egingo ziotela-eta. Handik igarotzen zirenek ez zioten jaramonik egiten, Lorenzo atsedean hartzen egongo zelakoan. Adar sikuak hartu eta muletak egiten saiatu zen bidaiari berrekiteko, baina deseroak ziren eta ez zen erraza haiekin asko aurreratzea.

Lorenzo gero eta larriago zegoen, benetan estututa eta halako batean gutxi gora-behera bere adineko bi mutil hurbildu zitzaizkion laguntzeko prest. Batak motxila astuna eramango zion eta besteak ibiltzen lagundu. Ohikoa baino mantsoago zihoazenez, orduak aurrera egin ahala lagun berriak biltzen zitzaizkien eta txandak egiten zituzten laguntzeko: motxila zeramaten batzuek, makilak uzten zizkioten besteek, hainbatek besoetan zeraman mutila... herrira iritsi ziren arte. Horrela, bidelagunei esker, Lorenzok atsedean hartzeko eta sendatzeko aukera izan zuen.

Handik egun batzuetara, lesioa sendaturik, Lorenzok bideari ekin zion berriz ere. Egun gutxi geratzen zitzaion helmugara iristeko, eta are eta diru gutxiago patrikan... Aurreikusitakoa baino egun-kopuru gehiago eman zituen azken ostatuan sendatu ahal izateko eta, ondorioz, pentsatutakoa baino diru gehiago xahutzea ekarri zion. Ostatu nagusiak hainbat aldiz hitz egin zuen egun haietan Lorenzo-rekin, eta bere susmoen arabera, nekez iritsiko zen bidaiaren amaierara, dagoeneko urrun ez bazen ere, hornidurari dagokionez eskas baitzebil.

Ostatu-jabeak lagundu egin nahi zion Lorenzori eta horretarako, gainerako ostalarien laguntzarekin, ideia hau bururatu zitzaion ibilbidea buru zezan: Bazekien zenbat etapa geratzen zitzaion Lorenzori, eta gutxi gora-behera non geratuko zen jateko eta atsedean hartzeko. Delako leku horietako aterpetxe eta ostatuen jabeekin hitz egin eta Lorenzoren kasua azaldu zien, bidaiaria hura bizitzarako argi-izpiren bat bilatzeko saiakeran zein garrantzitsua zen harentzat nabarmentzeaz batera. Ados agertu ziren guztiak eta Lorenzo ostatu batera edo bestera iristean, laguntza jasotzen zuen. Batzuek bazkaltzera gonbidatzen zuten, besteek beherapena egiten zioten ohearen prezioan edo biderako janaria ematen zioten, aterpeak eskaintzen zuen zerbitzuaren barruan sartzen zela aitzakiatzat jarritz. Horrela, ostatu-jabe guztien eskuzabaltasunarekin, Lorenzok bere jomugara hurbiltzea lortu zuen.

Eta iritsi zen Lorenzok hainbeste irrikatzen zuen eguna. Bizitza ilunetik zetorren, dena zen tristura bizitza hartan, ez zuen pozik egoteko arrazoirik eta poztasuna galdua zegoen. Baina, bideari eta bisitatutako lekuei esker, itxaropena berreskuratu eta argia aurkitu zuen. Argia bere familiaren errespetuan. Argia beretarren maitasunean. Argia gainerako erromesen adiskidetasunean. Argia ostatu-jabeen esuzabaltasunean.

Edozein izan daiteke-eta bidean argi egin dezakeen argi.

Paula Alonso González y María Huelga Manzano, 2015



“Jarduera ”

Pentsatu duzu etxeko zein lekutan ipiniko duzun Belengo Bakearen argia? Bilatu eskura dituzun lagungarri guztiak, besteak beste, kristalezko baso txiki bat, horixe izango baita zure argimutila, tenperak eta pegatina-papera edo zinta itsasgarria.

Erabili pegatina-papera baso txikian ipini nahi dituzun diseinuak (izarra, zuhaitza, botak, pertsona... nahi duzuna!) sortzeko. Amaitzean, ebaki eta itsatsi zure diseinuak basoan. Aukeratu gehien gustatzen zaizun tenpera eta margotu basoaren gainerako zatiak.



Lehortu eta pegatina-papera kendu eta zure diseinuak argitu egingo dira barruan Belengo Bakearen Argia jartzean, argiak Lorenzorengan distira egin zuen bezala hainbeste leku zeharkatu ondoren.



Lagun ieza dazdu munduan nire lekua aurkitzen

Jauna, leku-bila nabil munduan eta batzuetan ez dut aurkitzen.

Dena eman didazu,

begiak ikusteko eta gozatzeko, belarriak entzuteko eta ulertzeko, bihotza maitatzeko eta sentitzeko, garuna ikasteko eta pentsatzeko, eskuak lan egiteko eta ferekatzeko, oinak korrika eta dantzan egiteko...

Hainbeste daukat!...

eta hala ere, sarritan,

ez naiz ondo erabiltzeko gauza.

Zuk bizia oparitu zenidan eta ordainean, ondo erabili eta on egin nahi dut.

Antzeman ditzadala zure dohainak, nire talentu eta karismak, horiekin zu zerbitzatzeko nire familian eta nire elkartean.


Amén.



LA
LUZ
DE
LA
PAZ
DE
BELÉN

ASTEA 3

11 ABENDUA 2022



Bertan bizi zen herri bat...

(INSPIRATZEN GAITUEN PERTSONAK,
GURETZAT GARRANTZITSUAK...)



“Mateo 11, 2-11”

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen kartzelan, eta bere ikasle batzuk bidali zizkion galdetzerara:

“Zu al zara «Etortzekoa», ala besteren baten zain egon behar dugu?».

Jesusek erantzun zien:

«Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuen:

itsuek ikusi egiten dute eta herrenak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak piztu egiten dira eta behartsuei berriona ematen zaie.

Eta zoriontsua sinesteko oztoporik niregan aurkitzen ez duena!».

Haiek alde egitean, Jesus Joani buruz hitz egiten hasi zitzaion jendeari:

«Zer ikustera irten zineten basamortura?

Haizeak kulunka darabilen kanabera?

Zer ikustera irten zineten bestela?

Soineko apainez jantzitako gizona?

Jantzi apainekoak errege-jauregietan bizi ohi dira.

Zer ikustera irten zineten, bada? Profetaren bat? Bai, noski, eta profeta baino ere handiagoa.

Hartaz dago idatzia Liburu Santuan:

“Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik;

hark prestatuko dizu aurretik bidea”.

Benetan diotsuet:

Ez da amaren semerik sortu Joan Bataiatzailea baino handiagorik; hala ere, Jainkoaren erreinuko txikiena ere hura baino handiagoa da»



“Argiaren herria”

